



URRETXUKO UDALA

2016-2019 LEGEALDI

PLANA

Gobernu Taldearen iritziz Udallerriaren Ikuspegi bateruntz aurrera egiteko behar diren helburu estrategikoak jasotzen dituen dokumentua

Ez du gobernu perfektu batek falta egiten,
praktikoa den batek falta egiten du

Aristoteles (K.a. 384-K.a. 322), Greziako
filosofoa

Gobernu onena herria zoriontsu egin nahi
duena da, eta hori nola lortu dakiena.

Thomas Macaulay (1800-1859), Historiagile eta
politikari britaniarra

2016-2019 LEGEALDI PLANA

Aurrekariak eta justifikazioa

Udalaren antolamendua aldatzeko eta, urretxuar guztiei begira, egitura arin, hurbil eta nagusiki eraginkor bat lortzeko bideari buruz zenbait hilabetez gogoeta egin ondoren, gobernu-taldeak lan-tresna bizi eta eguneratua, zintzoa eta teknikoa, praktikoa eta motibatzailea sortzeko baldintza egokienak ditu; lan-tresna hori Legealdi Plana da.

Kudeaketa publiko aurreratua egiteko, beharrezkoa da lehentasunak identifikatzea eta baliabideak esleitzea, are gehiago etengabe aldatzen ari den eta eskakizunak amaigabeak diren inguru batean.

Plangintza estrategikoak erakunde batek planteatzen dituen helburu garrantzitsuak epe luzera begira kudeatzeko gai izatea dakar; horregatik, plan estrategikoak benetan izan nahi dutena izaten laguntzen die erakundeei. Ondo zehaztutako plangintza estrategikoa lagungarri da eragileek erabakiak modu egokian har ditzaten, ezinezkoa baita eragileak etengabe bilduta egotea erabaki horiek koordinatzeko.

Baina plangintza estrategikoa ez da nahikoa. Berrikuntza funtsezko elementu bihurtu da erakunde batek balio publikoa sortzeko zabaldu nahi dituen helburuak eta balio horiek hedatu nahi diren testuinguru aldakorrek lotzeko eta uztartzeko.

Horregatik, Toki Administrazioak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Proaktiboa eta berritzailea izan behar du, etengabeko bilakaera-prozesua izan behar du, eta pertsonen premia aldakorrei modu eraginkorragoan erantzuteko gai izango diren zerbitzuak eskaintzeko modu berriak garatu behar ditu.
- Iritsi-erraza, irekia, gardena eta hurbila izan behar du.
- Politikaren eta kudeaketaren arteko lerrokatze egokia izan behar du.
- Administrazio egokia egiteko beharrezkoa den arintasun eta malgutasunarekin garatu behar du legea betetzeko zeregina.
- Etika publikoarekin engaiatua egon behar du.
- Politikoki eta teknikoki lidergo sendoa eta engaiatua izan behar du.
- Enplegatu publikoen zeregina garatu behar du, eta, haien parte-hartzea sustatzeaz gain, haien konpromisoa eta erantzunkidetasuna bultzatu behar du.
- Helburu eta konpromiso esplizitu eta ebaluagarriak izan behar ditu.
- Gizartearentzat baliagarriak eta eraginkorrak izango diren emaitzak lortzeko helburua izan behar du, ebaluatu egingo da eta kontuak emango ditu gizartearen aurrean.



- Parte-hartzeko dinamiketan eta lanketa-prozesu publikoetan nahiz publiko eta pribatuetan oinarritu behar du.
- Eredu izan behar du, eta aitzin-aitzinean joan behar du iraunkortasun sozial eta ekonomikoarekin nahiz ingurumenaren arlokoekin lotutako beharkizunetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean eta euskararen erabileraren normalizazioan.

Alkatetzak gidatu du Legegintzaldi Plan honen lanketa-prozesua, BKT erakundearen laguntzarekin. Udal-langileen laguntza eta inplikazioa nabarmendu eta eskertu behar da, haiei esker, plan hau gure egoeran eta errealitatean ainguratutako proposamenetan oinarritu baita. Planaren xedea hurrengo hiru urterako lanerako gida izatea da, udalaren antolamenduari begira. Tresna bizia da, hobetu eta aldatu daitekeena, eta urtero ebaluatuko eta kontrolatuko da.



Gure xedea

Gure xedeak definitzen du legealdi honetan garatuko dugun JARDUERA: zer beharri erantzun nahi diegun emandako zerbitzuen bidez, zer ingurutan garatuko diren eta herritarrei zer irudi eskaini nahi diegun; azken batean, galdera honi emandako erantzunak zehazten du gure xedea: zertarako gaude udalean?

Gobernu-talde honen helburua URRETXUARREN eta BISITARIEN nahiz beren zeregina gure udalerrian garatu nahi duten PROFESIONALEN BEHARREI eta ESPEKTATIBEI erantzutea da. Pertsona horiek guztiak dira udalaren zerbitzu publiko eraginkor eta eragimentsuaren ardatzak, eta bikaintasunera eta berrikuntzara zuzendutako giza talde profesional batek eskaintzen du zerbitzu hori.



Gure jomuga

Gure jomugak deskribatzen du egungo gobernu-taldeak etorkizunean, 2015-2019 legealdian, izan nahi duen egoera; jomuga horren helburua erakundea gidatzea, kontrolatzea eta akuilatzea da, zehaztutako helburuak lor ditzagun. Honako galdera hauei erantzun behar diegu gure jomuga ulertzeko: gure udalerrria zer-nolakoa izatea nahi dugu legealdi honetan? Zer zimendu eraiki behar ditugu 4 urte hauetan, etorkizunean Urretxu haietan oinarritu dadin?

Funtsean, gure jomuga Urretxu herri bizia, dinamikoa eta erakargarria izatea da, etorkizunean lana, etxebizitza eta gizarte-zerbitzuak eskuragarri izango dituen, eta urretxuarrei bizi-kalitatea eskainiko diena.

Aurreko atalean adierazitako gure xedearen emaitzak eta orain azaldutako jomugak eratuko dute legealdi honetan gure gogoeta eta jarduketa guztien gidari izango diren ardatz estrategikoak.

Gure balioak. Urretxuren balioak

Gure balioek zehazten dituzte gobernu-talde honen kudeaketa gidatu behar duten funtsezko eta oinarrizko printzipioak.

- 1. Eraginkortasuna:**
Lana lehen ahaleaginean ondo egitea.
- 2. Eragimena:**
Lana ahalik eta merkeen egitea.
- 3. Gardentasuna:**
Zer egiten dugun eta zergatik azalduko dugu.
- 4. Hurbiltasuna:**
Herritarren zerbitzura gaude, eta pertsona gisa tratatzen ditugu, ez bezero soil gisa.
- 5. Errespetua:**
Herritarren interesak eta beharrak entzuten ditugu, arreta eskaintzen diegu eta balioetsi egiten ditugu.
- 6. Osotasuna:**
Zuzentasunez eta zintzotasunez jokatzeko dugu.
- 7. Entzute aktiboa:**
Proposamenak eta eskariak ulertzen ditugu, erantzun egokia eman ahal izateko.
- 8. Parte-hartzea:**
Urretxuko herritarrek politika publikoei buruzko erabakietan parte hartzeko aukera izateko tresnak erabiltzen ditugu.
- 9. Justizia soziala:**
Ez dugu inor baztertzeko. Gizarte-zerbitzuak eta arreta bermatzen diegu pertsona eta talde ahulenei.



10. Oreka:

Bizi-kalitatea eta zerbitzuak parekatzea udalerriko eremu guztietan, baita auzo eta baserrietan ere.

11. Elkartegintza.

Udalerriko elkarte, erakunde eta eragileek sortutako sinergia ustiatzea, belaunaldien arteko txandakatzea bermatuz eta Urretxuko elkarte-sarearen aberastasuna hedatuz.

Gure ardatz eta helburu estrategikoak

Udalaren jarduketa gauzatuko den esparru handiak laburbiltzen dituzte, XEDEA lortzeko eta XEDEA/JOMUGA bateratzeko bidean aurrera egiteko, betiere, balioetan oinarrituta.

Honako ARDATZ hauetan oinarritzen da Legealdi Plan hau:

1. Jarduera ekonomikoa, garapen ekonomikoa eta enplegua:

Kontestu konplexu batean, Planak lan proaktiboaren proiektzioa ezartzen du udal eremutik, eskualdeko egiturekin koordinatuta, eta eragile publiko eta pribatu guztiak helburu baterantz lerrokatzea helburu izanik: lehentasun haundiena ematea enpleguari eta jarduera ekonomikoari.

2. Zorroztasun ekonomikoa eta gardentasuna udalaren kudeaketan

Erabiltzen ditugun baliabideak guztionak dira, eta, beraz, arreta eta zorroztasun handiz kudeatu behar ditugu baliabide horiek; ez dugu duguna baino gehiago gastatu behar, eta urretxuarrentzat onuragarria den horretan soilik inbertitu behar dugu.

Dirua biltzeko gure gaitasuna hobetu behar dugu; izan ere, eraginkorrak izan behar dugu gure zergak eta tasak kudeatzeko eta biltzeko orduan, hortik irteten baita gure zerbitzuen hobekuntza berma dezaketen diru-sarrereren zati bat.

Ordaintzeke dauden zorrak ordaindu behar ditugu, berriak sortu gabe.

Baliabideen kudeaketa urretxuarrekin batera egin behar dugu, euro bakoitza zertan, nola eta zergatik gastatzen edo inbertitzen den azalduz eta argituz.

3. Hiri-garapen harmonikoa eta iraunkorra:

Hirigintza begirunetsua, teknikoa, arrazoitua, orekatua, gardena eta zintzoa bultzatu behar dugu. Hazkunde eta modernizazio iraunkorraren barnean, betiere. Aparkalekuen eta mugikortasunaren arazoei emandako erantzuna hobetuko duten oinarriak ezarri behar ditugu, Urretxuko eta Zumarragako bizilagunen interesak bateratuz. Azkar eta arintasunez erantzun behar diegu herritarren beharrei. Parkeak, plazak, instalazioak, azpiegiturak, garbitasuna, hondakinen kudeaketa, segurtasuna, irisgarritasuna eta ingurumena hobetzeko planak garatu behar ditugu.

4. Inbertsio publikoa:

Proiektu estrategikoak bultzatu behar ditugu. Adostasun ahalik eta handiena lortu behar dugu arazo ekonomikoen eta legezko arazoen ondorioz geldituta egon diren proiektu nagusiak berriro bultzatzeko.

5. Justizia soziala:

Gizarte Ekintzako Sailari eta sail horren baliabideei tinko eutsiko diegu, pertsona eta talde ahulenei gizarte-zerbitzuak eta arreta bermatuko dizkiegu eta berdintasun- eta elkartasun-printzipioak aplikatuko ditugu, bai eta laguntzen kontrol zorrotza ere.

6. Urretxuren nortasun-zeinuak sustatuko ditugu:

Urretxu udalerrri euskalduna da, eta urretxuarrek parte-hartze eta inplikazio handia izan dute betidanik udalerriko kultura-, kirol- eta gizarte-jardueretan nahiz jarduera solidarioetan. Kultura- eta kirol-jarduerak garatzeko eta horiez gozatzeko eskaintza hobetu behar dugu. Euskararen erabilera bultzatu behar dugu eguneroko komunikazioan; eta une honetan antolatzen diren nahiz hurrengo urteetan antolatuko diren elkartasun-jarduerari gure arreta eta babesa eskainiko dizkiegu.

Gure Legealdi Plana

Planaren esparru orokorra definitu ondoren, gure Legealdi Plana zehaztuko dugu; formalki eta lehenetsunez hautatutako ekintzen multzoak osatzen du plan hori, ekintza horien bitartez gure XEDEA eta helburuak lor ditzagun, betiere, gure BALIOETAN oinarrituta.

Azken urte hauetan, testuinguru berri bat nabarmendu da, eta, testuinguru horren arabera, udalok toki-eremuko kudeaketa garatu behar dugu.

1. Udalerriari modu nabarmenean eragiten dion arautegi andana hartu behar dugu kontuan:
 - a. Aurrekontu-egonkortasunari buruzko Legea.
 - b. Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunerako Legea.
 - c. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea.
 - d. Udal Legea, duela gutxi onartutakoa.
2. Joera ekonomikoek eta sozialek gizarte osoari eragiten diote, baina, bereziki, Toki Administrazioari. Besteak beste, honako hauek aipa ditzakegu:
 - a. Teknikifikazioa bizitzako esparru guztietan.
 - b. Biztanleriaren zahartzea.
 - c. Iraunkortasunaren inguruko gero eta kezka handiagoa.
3. Une honetan bizi dugun krisi finantzario eta ekonomikoaren iraupen luzetik ondorioztatutako aurrekontu-mugapenak hartu behar ditugu kontuan; gainera, hurbileko industria-ehunak izan duen bilakaera negatiboak are gehiago okertu du egoera. Diru-sarrerak murriztu egin dira, baina gizarte-premiak, aldiz, handitzen ari dira etengabe.
4. Gizarteak azken urteetan egindako eskari garrantzitsuek eredu berri bat bultzatu dute Toki Administrazioaren eta herritarren arteko harremanean. Honako kontzeptu hauei buruz ari gara: gardentasuna, parte-hartzea, arrazionalizazioa, jokabide etikoa, eredugarritasuna, etab.

Beraz, udalak bere gain hartu behar du, alde batetik, Urretxuri eta urretxuarrei balioa esleituko dien administrazioa izan behar duela, lurralde-eragile izan behar duela eta kalitatezko zerbitzu publikoak eskaini behar dituela; eta, bestetik, gobernu-funtzioa duela kontuan hartuta, proiektu partekatu bat gauzatzea bultzatu behar duela eta zeregin horretan parte hartu behar duela. Jarduera ekonomikoarekin, industrialarekin, enpleguarekin, kultura-dinamizazioarekin, iraunkortasunarekin, gizarte-integrazioarekin eta abarrekin lotutako proiektuetan oinarritu behar du proiektu partekatu horrek.



Ondoren, gure helburu zehatzak eta helburu horiek lortzeko hautatutako ekintzak bildu ditugu; horrez gain, helburu horiek garatzeko ardura izango duten politikariak eta teknikariak adierazi ditugu, eta kronograma bat ere jaso dugu, guztia prozesuen arabera antolatuta: Garapen ekonomikoa eta industria; Tokiko merkataritza eta turismoa; Landa-ingurua; Gardentasuna; Herritarren Parte-hartzea eta Arreta; Ogasuna; Barne-antolamendua; Ondarea; Gizarte-ekintza; Berdintasuna; Obrak eta inbertsioak; Azpiegituren Mantentze-lanak; Hirigintza; Ondarea; Ingurumena; Mugikortasuna eta Trafikoa; Segurtasuna, Bakea eta Bizikidetzak; Kultura eta Hezkuntza; Kirola; Jaiak; Euskalduntze integratzailea sustatzea eta Gazteria.

21 prozesu horietatik 5 zehar-lerroko izaerakoak dira; hortaz, horien inplementazioa ekintza zehatzetan islatu beharko da eta gainontzekoetan ondorioak izan beharko ditu. Izaera hori dute: Euskalduntzea, Ingurumena, Berdintasuna, Gardentasuna eta Parte-hartzea sustatzea, eta gaur egun gure inguruak duen egoera sozio-ekonomikoa ikusirik, Garapen Ekonomikoa eta Industrialak.



Garapen ekonomikoa eta enplegua

Garapen ekonomikoa eta industria

Tokiko merkataritza eta turismoa

Nekazal ingurunea

PROZESUA 1	GARAPEN EKONOMIKOA ETA INDUSTRIALA												
EKINTZA	1.1	Eskualdeko eta inguruko eskualdeetako enpresen gaitasun inbertsoreak aztertzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	25.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	J. Luqui, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>.- Zerbitzu eta industria enpresentzat kokapen posibleen azterlan proaktiboa.</p> <p>.- Inbertsio berrien kokapen onena erabakitzeko funtsezko diren baldintzei egokitzea (Hirigintza Plan Orokor berria).</p>												
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					

PROZESUA 1	GARAPEN EKONOMIKOA ETA INDUSTRIALA												
EKINTZA	1.2	UGGASA eskualdeko garapen agentziaren bitartez, gure inguruan ehun industrialak egonkortzeko eta hazteko behar diren jarduerak sustatzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	J. Luqui, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>.- Laguntza eman behar dugu Urola Garaia eskualdeko enpresa ehunarentzat garapen lehiakor aurreratuago bat lortzeko, eta horrek lotura zuzena du hainbat faktorekin, gure posizioa ez delarik egokiena:</p> <ol style="list-style-type: none"> (1) Enpresa traktore falta (2) Urola Garaiko jarduera industrialean I+D delakoaren integrazio maila Gipuzkoako lurraldearen eta EAeren batz bestekoaren oso azpitik dago. (3) Urola Garaian zerbitzu enpresen presentzia ere batz bestekoaren oso azpitik dago portzentajeetan. (4) Eskualdean interes eta ekintza amankomunak jartzeko elkarte enpresarial edo sektorialen garapen maila ere oso ahula izan da azken urteotan. 												
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					

PROZESUA 1		GARAPEN EKONOMIKOA ETA INDUSTRIALA													
EKINTZA	1.3	Inbertsore posibleen arreta erakartzea, herri inguruko lur zoru industrialak eskainiz													
		2016			2017			2018			2019				
AURREKONTUA	6.000 €			X			X			X					
ARDURADUNAK	J. Luqui, J. Albisua, I. Zubillaga														
TESTUA	<p>.- Irimoko areari balioa azpimarratu eta irteera ekonomiko bideragarria ematea, jarduera ekonomikoak egin eta enpleguaren sorrera ahalbidetzeko.</p>														
				0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA															

PROZESUA 2	TOKIKO MERKATARITZA ETA TURISMOA												
EKINTZA	2.1	Herriko merkataritzari laguntza generikoa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	10.000 €			X			X			X			X
ARDURADUNAK	J. Luqui, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>.- Mankomunitatetik edo Merkataritza Sustatzeko Bulegotik zehazten diren estrategiak babestuz, ekintza zehatzak garatuko dira gaur egun dauden gune eta denden irudia indartzeko: garbiketa, aparkalekua eta trafikoa, azoken kokapena, argiztapena, e.a...</p> <p>.- Herrian dagoen merkataritzaren irudiari laguntza eman marketing ekintzekin.</p> <p>.- Kirol eta kultur jarduerak herrian dauden dendeekin eta beraien merkatal gaitasunarekin lotu, ekitaldi horiek merkatal erakargarri gisa erabiliz.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 2	TOKIKO MERKATARITZA ETA TURISMOA												
EKINTZA	2.2	Herriko merkataritzari laguntza espezifikoa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	24.000 €			X			X			X			X
ARDURADUNAK	J. Luqui, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>.- Uste izatekoa da gaur egungo egoera sozio-ekonomikoak gogor eragingo duela herriko merkataritzaren arloan. Horregatik, Merkataritza Sustatzeko Bulegoarekin eta Merkatarien Elkartearekin batera lan egingo da, herriko kontsumoa aktibatzea helburu izango duen plan bat egin eta ezartzeko.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 2	TOKIKO MERKATARITZA ETA TURISMOA												
EKINTZA	2.4	Urretxuren irudia indartu historiaren eta naturaren inguruan											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	4.500 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M. Castillo, J. Luqui												
TESTUA	<p>- Alde zaharrari, Tourseko San Martin elizari, Errege Bideari, jauretxeei, ..., eta Urretxuko historiaren zati garrantzitsu bati balioa azpimarratzea: 2017an 400 urte beteko dira Ipeñarrieta Jauregia eraiki zenetik (liburua/beka); 2020an, Joxe Mari Iparragirre jaio zeneko 200. urteurrena beteko da.</p> <p>- Inguru natural ezin hobeari balioa azpimarratzea: Santa Barbarako kanpa, mendi ibilbideak, ibilbide geologikoak, ...</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 2	TOKIKO MERKATARITZA ETA TURISMOA												
EKINTZA	2.5	Inaziar Bidea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M. Castillo, J. Luqui												
TESTUA	<p>.- Urretxu da Inaziar Bideko 1. etaparen amaiera, eta beraz gure herrira datozen erromes joan-etorri handia gertatuko dela uste da. Hortaz, Inaziar Bidearen barruan geure tokia edukitzeko alderdiak indartzea:</p> <p>- Santa Barbarako Udal Aterpetxeko seinaletika.</p> <p>- Errege Bidea eta bidegorria Antzuolarekin batera.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 2	TOKIKO MERKATARITZA ETA TURISMOA												
EKINTZA	2.6	Santa Barbarako Aterpetxea indartzea turismo erakargarri gisa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	30.000 €			X		X			X			X	
ARDURADUNAK	M. Castillo, J. Luqui												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> - Seinaletika. - Oholtza. - Aisia eta kultura jarduerak. - Argiztapena. - Autokarabana parkea. - Kalitate sistemak, merkataritza plana. 												
			0%			10%			20%			40%	
									60%			80%	
												100%	
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 3	NEKAZAL INGURUNEA												
EKINTZA	3.1	Lehen mailako jarduera indartzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	300.000 €			x			x			x		x	
ARDURADUNAK	A. Lizarralde, I. Zubillaga, J. Luqui												
TESTUA	<p>.- Baserritarrei laguntza ematea euren produktua komertzializatzeko prozesuan (Bertatik Bertara).</p> <p>.- FERIA eta lehiaketan dinamikarekin jarraitzea.</p> <p>.- Erakundeen babesarekin baserritarrei laguntzeko proiektuak bultzatzea.</p> <p>.- Mugen digitalizazio eta baserrien seinalizazio proiektuak amaitzea.</p> <p>.- Landa-lurrak erosteko ahalegina.</p> <p>.- Gure baserrietako belaunaldien jarraipena aztertzea.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 3	NEKAZAL INGURUNEA												
EKINTZA	3.2	Herribide eta pistak hobetzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	140.000 €			x			x			x		x	
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, A. Lizarralde, J. Luqui												
TESTUA	<p>Udal inbentarioa osatzen duten bideen sareak (baserrietarako bideak nahiz baso-pistak) konponketa ugari behar ditu, gehienak duela hogeitau urte eta eraiki baitziren, mailazorik gabe. Ibilgailuen joan-etorriak, higadurak eta mendi-hegalen mugimenduak kalte ugari eragin ditu. Lehentasunak zehaztu, pistaren egoeraren eta ematen duen zerbitzuaren arabera.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

Zorroztasun ekonomikoa eta gardentasuna
kudeaketan

Gardentasuna, herritarren parte-
hartzea eta arreta

Ogasuna

Barne-antolamendua

Ondarea

PROZESUA 4	GARDENTASUNA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ARRETA												
EKINTZA	4.1	Herritarrekiko harremana hobetzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	72.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	BKT, J. Luqui, I. Agirre, M. Fidalgo												
TESTUA	<p>Harrera-bulegoak izan behar du udalaren benetako sarrera-atea, eta pertsona guztien zalantzei erantzun behar zaie bertan. Informatzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko udal-zerbitzu gehienak modu integratuan eskaintzea da helburua, aurrez aurre, telefonoz zein bide telematikoz. Zerbitzu-orientazio eta -bokazio argiarekin pentsatu eta diseinatuko da, herritarrek erosotasunez jo dezaten udalera, eta herritarrekiko komunikazioa eta harremana errazteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Administrazio-izapideen eskuliburua prestatzea. - Zerbitzuen gutuna prestatzea; udalaren zerbitzu jakin batzuei buruzko informazio nagusia jasoko da, eta eskubideak eta betebeharrak nahiz kalitate-konpromisoak zehaztuko dira. - Espedienteen kudeaketa ezartzea, berorien jarraipen telematikoa egin ahal izateko. - Zerbitzu telematikoen kopurua progresiboki handitzea. - Beste administrazio batzuekiko elkarreragingarritasuna sustatzea. - Sinadura elektronikoa ezartzea. - Udal-zerbitzuen kalitatea sustatzea. 												
			0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%				
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 4	GARDENTASUNA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ARRETA												
EKINTZA	4.2	Herritarren parte-hartzearen instituzionalizazioa gobernu irekiaren estrategiaren markoan											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	40.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	BKT, J. Luqui, I. Agirre, M. Fidalgo												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> - Udalaren kudeaketan parte hartzeko eredu integrala eta integratua bilatzen dugu; ordenan eta herritarren parte-hartzearen aldeko apustuan oinarrituko da, eta gero eta espazio, prozesu eta esperientzia gehiago hartuko ditu barnean, udal-kudeaketaren hainbat esparrutan. - Planteatzen dugun eredua saiaturiko da herritarrei ikusarazten parte-hartzea pertsonalki eta sozialki baliagarria eta eraginkorra dela, eta plangintza batean eta prozesu parte-hartzaile inklusibo, garden eta irisgarrien ondorengo inplementazioan oinarrituko da; prozesu horiek eragileen arteko lankidetzan eragingo dute, eta eragile horiek parte-hartze zabal eta askotarikoaren eredu eta bultzatzaile izango dira. Bestalde, prozesu eraginkorrak izango dira, parte-hartzean oinarritutako ekimenek hartuko diren azken erabakietan epe laburrean eta ertainean duten benetako eragina ikustea ahalbidetuko baitute. 												
			0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%				
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 4	GARDENTASUNA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ARRETA												
EKINTZA	4.3	Parte-hartze gaitasunak garatzea lankidetzaz printzipioaren bitartez											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak			X			X			X			X
ARDURADUNAK	BKT, J. Luqui, I. Agirre, M. Fidalgo												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> - Urretxuko Udalaren egitura politikoa eta antolamendua egokitzea. - Gobernuaren Gida Plana prestatzea udalerako, 2016-2019 urteetarako; plan irekia izango da, eta honako hauek adieraziko dira: helburuak, planak ildo estrategikoak, jarduketa-planak eta ekintzak, jarduketa-kronogramak eta ebaluaziorako tresnak; azkenik, baliabideak ere zehaztuko dira. - Gobernu irekia, parte-hartzean oinarritutakoa, garatzeko ordenantza bat edo arautegi bat adostea eta prestatzea. - Udallerriak sustatutako eta parte-hartzean oinarritutako ekimen guztiak martxan jartzeko kontuan izan beharreko protokolo bat zehaztea. - Erabilera-eskuliburu espezifikoak prestatzea jarduketa-esparru zehatzetan herritarren parte-hartzea eraginkortasunez gauzatzeko. - Gutxieneko irizpideak ezartzea aukera eta interesekin lotuta, plan, programa edo proiektu jakin baten diseinuan parte-hartze prozesua txertatu beharra zehazteko. - Parte hartzeko metodologiaren eta zuzeneko kanalen edo kanal birtualen integrazioa bermatzea. - Sare sozialetan adierazpen-askatasuna kudeatzeko eredu bat txertatu dela egiaztatzea. - Kalitate demokratikoari buruzko irizpideen proposamen bat formulatzea, parte-hartze prozesuak ebaluatzeko helburuarekin. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 4	GARDENTASUNA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ARRETA																
EKINTZA	4.4	Komunikazio instituzionala															
		2016				2017				2018				2019			
AURREKONTUA	20.000 €				X				X				X				X
ARDURADUNAK	I. Agirre, M. Fidalgo, J. Luqui																
TESTUA	<p>Azken urteetan, erabat aldatu da herritarrek erakunde publikoei buruz duten iritzia. Herritarrekin zerikusirik ez duen zerbait zirela pentsatetik guztion zerbitzura daudela pentsatzera igaro gara, eta herria oso identifikatuta sentitzen da haiekin. Udalen kasuan gertatu da hori, batez ere.</p> <p>Horregatik, beharrezkoa iruditzen zaigu komunikazio-estrategia bat ezartzea, udalaren ikuspegi integrala hartuko duena barnean:</p> <ul style="list-style-type: none"> .- Webgunea egokitu egingo da, bizi dugun garaiarekin bat etor dadin eta herritarrei hainbat balio helaraz diezaien, plan honetan adierazitakoen ildotik: eraginkortasuna, parte-hartzea, gardentasuna, hurbiltasuna, modernotasuna, etab. .- Sare sozialak erabiliko dira. .- <i>Kaixo</i>, udalaren aldizkaria. 																
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%									
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 5	OGASUNA												
EKINTZA	5.1	Oinordetzan hartutako zorpen maila kentzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	1.739.840€			X			X			X			
ARDURADUNAK	Kontu-hartzailea, I. Agirre, J. Luqui												
TESTUA	<p>2015eko abenduaren 31n, Udalaren zorra 1.739.840 eurokoa zen, interesak sartu gabe. Zorraren proiektzioa honako hau da:</p> <p>2016/12/31: 1.483.447€ 2017/12/31: 1.045.078€ 2018/12/31: 576.677€ 2019/12/31: 251.937€ 2020/12/31: 33.850€</p> <p>Gobernu talde honen helburua da legegaldiaren amaiera aurretik zorra kentzea, ondorengo udalbatzek osorik erabili ahal izan dezaten udal aurrekontua, finantza-karga erantsirik gabe.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 5	OGASUNA												
EKINTZA	5.2	Zerga bilketaren efizientzia											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	140.000 €			X			X			X			X
ARDURADUNAK	Kontu-hartzailea, I. Agirre, J. Luqui												
TESTUA	<p>Udalaren zerga bilketak Udalaren helburuak lortzea ahalbidetuko duten diru sarreraren zati bat eman behar dio udalerrinari. Hortaz, hil edo biziko garrantzia du udal tasetan eta ordenantzetan aurreikusitako sarrerak borondatezko epean jasotzea, batez ere araututako kontzeptuak.</p> <p>.- Udal tasa eta prezio publikoen sarreraren kudeaketa hobetzea borondatezko epean. .- Modu mailakatu batean, eskainitako zerbitzuen mailara egokitzea eta doitzea tasak. .- Berankortasun maila murriztea.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 6	BARNE-ANTOLAMENDUA														
EKINTZA	6.1	Udal zerbitzuen katalogoak egitea													
		2016			2017			2018			2019				
AURREKONTUA	Berezko baliabideak				X	X									
ARDURADUNAK	BKT, M.J Begiristain, J. Luqui, I. Zubillaga														
TESTUA	<p>Tokiko administrazioak derrigorrez eman beharreko zerbitzuak definitzen dituen eskumen markoa eskaintzen du legeria aplikagarriak.</p> <p>Hala ere, Urretxuko Udalak, izatez, legeak ezartzen duen gutxieneko eremua gainditzen duten beste batzuk eskaintzen ditu, beste Herri Administrazio batzuen berezko zerbitzu osagarriak eskainiz, gertutasun eta subsidiariorotasun irizpideen arabera.</p> <p>Zerbitzu katalogo zabal hau Udal Administrazioan behar bezala txertaturik geratzea nahi dugu.</p>														
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%							
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA															

PROZESUA 7	ONDAREA												
EKINTZA	7.1	Ondare higiezinaren eta gerorako erabileren katalogoa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M.J. Begiristain, , J. Luqui, I. Zubillaga												
TESTUA	Epe motz, ertain eta luzerako premiak aztertzea.												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 7	ONDAREA												
EKINTZA	7.2	Kultur ondarearen katalogoa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak			X			X			X			
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, M. Castillo, J. Luqui, I. Zubillaga, M. Fidalgo												
TESTUA	Epe motz, ertain eta luzerako premiak aztertzea.												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 7	ONDAREA												
EKINTZA	7.3	Nekazal ondarearen katalogoa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA					X				X			X	X
ARDURADUNAK	M.J. Begiristain, A. Lizarralde, J. Luqui, I. Zubillaga												
TESTUA	Epe motz, ertain eta luzerako premiak aztertzea.												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

Justizia Soziala

Gizarte-ekintza

Berdintasuna

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA												
EKINTZA	8.1	Zahartze aktiboa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	154.200 €			x			x			x			x
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre												
TESTUA	<p>Gizartean duen parte-hartzea bermatzea, dituen premien, nahien eta gaitasunen arabera eta ahalik eta gehien baliatuz osasun fisiko ona izateko, emozionalki ondo sentitzeko eta gizartean inguru onuragarria izateko aukerak. Adineko pertsonen bizi-kalitatea eta bizi-itxaropena hedatzea da helburua. Horretarako, honelako ekimenak ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tipi Tapa: adineko pertsoneri begira astero antolatutako paseoak, ariketa fisikoa sustatzeko, autonomia pertsonala bultzatzeko eta mendekotasunari aurrea hartzeko. • Kaleko gimnasioak: eguneratzen, berritzen eta hirugarren adineko jendearen artean horien erabilera bultzatzen jarraitzeko konpromisoa. • Erretirodunen etxeko jarduerak: hainbat lantegi daude (erorketei aurrea hartzea, memoria, sakelako telefonoen erabilera, etab), eta, horiez gain, jarduera ludikoagoak ere egiten dira, adineko pertsonen astea, adibidez, San Martin egunaren inguruan; edo beste jarduera berritzaileago batzuk, sei hilean behin argitaratzen den aldizkaria, adibidez. • Belaunaldien arteko trukea: araututako eta gainbegiratutako lantegiak; Gaztebideaneko gazteek eta adineko pertsonen elkarrekin lan egiten dute jarduera berean. • Parte-hartzea: Urretxu Lagunkoia programaren bitartez, hirugarren adineko pertsonen Urretxuren diagnostikoan eta diseinuan parte hartuko dute, hala, udalerriko auzoen eta inguruen hobekuntzan parte hartuz, Urretxu lagunkoia eta hesirik gabea lortzeko. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA												
EKINTZA	8.2	Menpekotasuna duten pertsonak											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	3.200.000€			x			x			x		x	
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre												
TESTUA	<p>Adineko pertsonen edota mendekotasun fisiko edo psikologikoren bat duten pertsonen ongizatea bermatzea, horretarako beharrezko laguntza emanez, egoera eta kasu bakoitzaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eguneko Zentroa: erabiltzaileak suspertzeko edo ahalik eta autonomia handiena izateko helburua du, hala, mendekotasuna ahalik eta gutxien areagotzea lortzeko. Horretarako, honako hauek eskaintzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> - Eguneko arreta, astelehenetik ostiralera eta asteburuetan. - Laguntza integrala, ahalik eta autonomia gehien izateko programa egokiak garatuz, dietistaren laguntzarekin, terapien bidez, etab. - Erabiltzaileen familiei laguntzea eta aholkuak ematea, etxean ere ahalik eta modu egokienean zain ditzaten. - Eguneko Zentrorako egokitutako garraioa, erabiltzaileak beren etxeetatik ahalik eta hurbilen jasoz. • Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua: etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren bidez etxeko lanak edota arreta pertsonalarekin eta higienarekin lotutako zereginak egiten dira onuradunen etxean bertan. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA																
EKINTZA	8.3	Arrazoi ekonomiko edo/eta sozialengatiko gizarte-bazterketa															
		2016				2017				2018				2019			
AURREKONTUA	500.000€				x				x				x		x		
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre																
TESTUA	<p>Pertsona guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzten gizartea eraiki nahi dugu; pertsonen egoera ekonomikoa eta soziala edozein izanik ere, pertsonen desberdintasunak errespetatuko dituen gizartea, oinarrizko premiak –ekonomikoak nahiz enpleguarekin, harremanekin, hezkuntzarekin, osasunarekin edo etxebizitzarekin lotutakoak– aseko dituen. Gizarte-bazterketarako hainbat modu daude, eta hainbat neurri eta laguntza ezarriaz bazterketa oro eten nahi dugu, pertsona bakoitzaren egoera banan-banan aztertuz eta diagnostiko pertsonalizatua eginez.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-larrialdiko laguntzak, bazterketa pertsonal eta gizarte-bazterketako egoerak nahiz laneko bazterketako egoerak arintzeko eta baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez duten pertsonen gizarteratzea errazteko, herritar guztien gizarte-eskubideak modu eraginkorren gauza daitezen. • Gizarte-larrialdiko laguntzetan kontuan hartzen ez diren beharrei erantzuteko banakako laguntzak (eskolaz kanpoko jarduerak, etab.) • Gizarte-larrialdiko etxebizitza: gizarte-larrialdiko etxebizitza bat izatea premia larrietarako, bai tratu txarren kasuetarako, ohiko etxebizitzak kalte larriak izan dituelako, etab. • Elkar Ekin banakako laguntza-plan berriari parte hartzea eta plan hori abiaraztea. 																
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%									
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA												
EKINTZA	8.4	Dibertsitate funtzionaleko pertsonak gizarteratzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	14.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre												
TESTUA	<p>Kirol integratzailea sustatzea, behin-behineko ekintza edo ekimen espezifikoetan nahiz garatuko diren gainerako politiketan eta neurrietan ikuspegi "integratzailea" aplikatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirol integratzaileko programa: kirola sustatzea aniztasun funtzionala duten pertsonen artean, eta aniztasun funtzionala duten eta kirola egiten duten pertsonak ikusgarri egitea. • Herri lagunkoia: Urretxu Lagunkoia programaren bitartez, edozein aniztasun funtzional duten pertsonak Urretxuren diagnostikoan eta diseinuan parte hartuko dute; udalerriko auzoetan eta inguruetan parte hartuko dute horrela, Urretxu lagunkoia eta hesirik gabea lortzeko. • Elbarrituei zuzendutako aparkalekuak antolatzea eta kontrolatzea. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA												
EKINTZA	8.5	Familiei eta adin txikikoei laguntza											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	196.000€			x			x			x		x	
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> • Gune Irekiko Programa arrisku-egoeran dauden adingabeei eta gazteei zuzendutako gizarte-heziketako esku-hartze programa da, adingabe eta gazte horiek gizarteratzeko helburua duena. Horretarako, etxeetan, hezkuntza-ekipamendu soziokultural formaletan eta ez-formaletan, kalean eta bestelako esparruetan lan egiten da. • Banakako laguntzak: tratamendu-programaren bat egiten duten eta bazterketa-egoeran dauden bizilagunei, senideak espetxean dituztenei edo gizarte-larrialdiko laguntzetan sartzen ez diren premiak dituztenei zuzentzen zaizkie. • Laguntza psikologikoa eskaintzen zaie hala eskatzen edo behar duten familiei. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA																
EKINTZA	8.6	HARRERA PROTOKOLOA garatzea, hedatzea eta ezartzea															
		2016			2017			2018			2019						
AURREKONTUA	70.000€				x				x				x				x
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre																
TESTUA	<p>Immigrazio eta Aniztasun Plana hedatzeko eta ezartzeko konpromisoa.</p> <p>Zumarraga plan honetan eta planetik sortuko diren ekimenetan txertatzeko konpromisoa, bi udalerrien arteko lankidetzeta-hitzarmen baten bidez; "Bizikidetzeta Mahaia" sendotu behar da, aniztasunaren behatoki izaten jarraitzeko eta bi udalerrietako jendea har dezan barnean. Jarduerek, adibidez, honako hauek bilduko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kulturen Azoka, hainbat urretxuarren jatorrizko kulturak ezagutarazteko. • Harrera Eskola, herrira iritsi berriak direnentsat; herria ezagutzen lagunduko zaie, bai eta herriko erakunde edota zerbitzuen funtzionamendua ezagutzen ere. • "Bizilagunak – El vecino de al lado" programa babestea eta programa horretan parte hartzea; SOS Arrazakeria da programa horren bultzatzailea, eta udalak ere hartzen du parte, hainbat jatorritako bizilagunek janariak eta bizipenak truka ditzaten eta elkar ezagutu dezaten. 																
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%									
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA												
EKINTZA	8.7	Nazioarteko lankidetzak											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	240.000€			x			x			x			x
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre												
TESTUA	<p>Garapenerako programak bultzatzea, garatzen ari diren herrialdeetako biztanleen baldintza sozioekonomikoak hobetzera zuzendutako programak, hain zuzen ere, kontu-sail hori urtez urte handitzeko konpromiso irmoarekin, Urretxuko Udaleko aurrekontuen % 0'7ra iritsi arte.</p> <p>Udalak honako hauen bidez laguntzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irabazi asmorik gabeko erakundeak, egoitza Euskal Herrian dutenak eta garatzen ari diren herrialdeetan betetzen dutenak beren zeregina. • Urretxun erroldatutako pertsonak, irabazi asmorik gabeko lankidetzak garatzen dutenak GKE batean. • Euskal Fonda, Tokiko Euskal Erakundeen Lankidetzarako Elkarteak, lankidetzak deszentralizaturako koordinazio eta laguntza-tresna Euskal Herrian; horren bidez, hainbat proiektutan hartzen du parte. • Giza hondamendietarako larrialdiko laguntzak. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA																
EKINTZA	8.8	Gizarte izaerako elkarteak laguntzea															
		2016				2017				2018				2019			
AURREKONTUA	80.000€				x				x				x				x
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre																
TESTUA	Elkarteak eta urtean zehar herrian ematen diren gizarte izaerako ekimenak laguntzea.																
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%									
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 8	GIZARTE-EKINTZA												
EKINTZA	8.9	Eskolako jardueren sustapena											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	15.000 €			x			x			x		x	
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre												
TESTUA	<p>Ikastetxeei laguntza ematea honako hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> Berdintasunaren sustapena; genero indarkeriaren eta genero arrazoiengatik ezberdintasunaren prebentzio kanpaina eta programa bitartez, eta berdintasunaren balioa azpimarratzea. Drogomenpekotasunaren prebentzioa, kanpaina eta formazio programen bitartez. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 9	BERDINTASUNA												
EKINTZA	9.1	Urola Garaia Mankomunitatearen 2. Berdintasan Plana											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Mankomunitateko aurrekontuak		x	x			x			x		x	
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre, J. Luqui												
TESTUA	<p>Gure konpromisoa da Urola Garaia Mankomunitatearen II Berdintasan Planaren diseinuan eta zabaltze lanetan parte hartzea, plan honetatik ateratzen diren Politika eta neurri guztiak sustatuz eta aplikatuz; hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> Beldur Barik Programa. Emakumearen Etxea. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 9	BERDINTASUNA																
EKINTZA	9.2	2. Berdintasun Plana herrian ezartzea															
		2016			2017			2018			2019						
AURREKONTUA	30.000€				x				x				x				x
ARDURADUNAK	R. Gamiz, I. Arriaran, M. Fidalgo, I. Agirre, J. Luqui																
TESTUA	<p>Genero ikuspegia aplikatzea Udaleko hainbat sailetan gauzatzen diren jarduketara guztietan, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> Hirigintza eta obrak: Herriko gune arriskutsuak zehazten dituen "hiri debekatuaren" mapa buruan izatea kaleak argizatzerakoan eta obra berriak egiterakoan. Hobekuntza lanak antzemandako arazo-guneetan. Kultura eta Kirolak: Berdintasuna sustatuko duten jarduerak eta ikuskizunak kontratatzea. Berdintasuna ekitaldiak antolatzerakoan, e.a... <p>Mankomunitatearen Berdintasun Plana babestea eta osatzea herriko jarduerekin:</p> <ul style="list-style-type: none"> Informazioa banatzea. Hautzaindegi zerbitzua, herriko jardueretan parte-hartzea ahalbidetzeko (harrera eskola, hitzaldiak, ...) Kultur ekitaldiak: kontzertuak, antzerkiak. Hitzaldiak. ... 																
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%									
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

Hiri-garapen harmonikoa eta iraunkorra

Obrak eta inbertsioak

Azpiegituren mantentze-lanak

Hirigintza

Ingurumena

Mugikortasuna eta Trafikoa

Segurtasuna

PROZESUA 10	OBRAK ETA INBERTSIOAK												
EKINTZA	10.1	Udal igerilekuak											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	1.200.000 €			X			X			X			
ARDURADUNAK	Inbertsioen Jarraipenerako Taldea (IJT), J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>Ur-ontziak duen egiturazko hondamen larria eta horrek etengabe dakartzan mantenu-gastuen aurrean, badirudi iritsi dela garaia instalazio honetan berrikuntza sakon bat egiteko, gaur egungo legeriari egokitzuz eta aforoa erabiltzaile nagusien beharretara doitzuz, Urretxu eta Zumarragako herritarren beharretara. Inbertsioaren tamaina ekonomikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza eskatzen du.</p>												
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 10	OBRAK ETA INBERTSIOAK												
EKINTZA	10.2	Udaletxeko beheko solairua eta lehen solairua berritzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	250.000 €		X	X									
ARDURADUNAK	IJT, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>Gaur egun Gizarte Ekintzako Zerbitzuak eta Udaltzaingoa dauden tokietan berrikuntza osoa egitea izango litzateke, egungo premietara gehiago egokituko den gunea definitzeko eta herritarrentzat inguru zabalagoa.</p>												
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 10	OBRAK ETA INBERTSIOAK												
EKINTZA	10.3	PASIOTARREN eraikina											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	80.000 €			X			X			X			
ARDURADUNAK	IJT, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>Ekintza hau eraikinaren erabilerak definitzea eta pixkanaka martxan jartzea izango litzateke. Aldez aurretik hausnarketa lasaia, parte-hartzailea eta orokorra egin beharko da, ideia praktikoak, herrikoiak eta gerora iraunkorrak ekarriko dituen.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 10	OBRAK ETA INBERTSIOAK												
EKINTZA	10.4	Proiektuak egitea eta berrikustea. Plaza eta parketan inbertsioak gauzatzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	2.000.000 €			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
ARDURADUNAK	IJT, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> .- Jose M^a Lasa parkea. .- Pagoetako aparkalekuak eta haur-parkea. .- Nekolaldeko aparkalekuak. .- Lizeoko parkea. .- Ormazabal etxeko plaza berria. .- "Rascielos" azpiko elkarten ingurua. <p>Proposatutako ekintza horien tamaina ekonomikoaz jabeturik, 2016, 2017, 2018 eta 2019 urteetan zehar egingo dira inbertsioak, beti ere aurrekontuaren erabilgarritasunaren, diru-laguntzen eta Zumarragako Udalarekiko akordioen arabera.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 10	OBRAK ETA INBERTSIOAK												
EKINTZA	10.5	Bidegorria Antzuola aldera luzatzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	100.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	IJT, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>Deskargako errepidea zabaltzeko obrak eginda, bidegorri bat egokitu da Antzuolako lur sailetan, mendatearen ia goraino doana.</p> <p>Urretxu aldeko hegalean, eusko trenbidearen bide zaharra berreskuratzeak eta luzatzeak bi bailarak lotuko dituen bide berdea sortzeko aukera ematen du.</p> <p>Funtsean Urretxu aldean egongo litzateke egin beharreko jarduketa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes eskatuko du bidegorrien eta txirrindularitzako bideen Planaren barruan.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 10	OBRAK ETA INBERTSIOAK												
EKINTZA	10.6	Obra txikiak											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	160.000 €			X			X	X				X	
ARDURADUNAK	IJT, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>Beraien tamainagatik ordainketa eta proiektu haundirik behar ez duten obrak, baina gune edo kolektibo jakin batzuegan eragin handia izan dezaketenak detektatzea izango litzateke. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jubilatuen egoitzaren barruan dagoen komuna handitzea eta bere ingurua egokitzea. - Gainzurin baratza eta konpostajerako kokapen berria. - Santa Barbarako eszenatokia. - Skate pista, ... 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 11	AZPIEGITUREN MANTENTZE-LANAK												
EKINTZA	11.1	Mantentze Plan zuzentzailea eta prebentiboa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak						X	X	X	X			
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, P. Lazkano, J. Albisua, I.Zubillaga												
TESTUA	<p>Funtsean udal brigadan oinarritutako mantentze programa bat definituko da, herri barruan eguneroko jardunerako behar diren zerbitzu guztiak etengabe prest izateko.</p> <p>Beharrezko ekintza prebentiboak eta zuzentzaileak jasoko dituen agiri bat izan behar du, urteko zikloetan, herriko azpiegitura guztien iraunkortasun egokia bermatuko duena.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kirol instalazioak. - Instalazio administratiboak. - Kultur jardueretarako azpiegiturak. - Aisialdi guneak. - Hirugarren adineko pertsonen erabiltzeko guneak. - Oro har, udal ondarea. <p>Beharrak zehaztu ondoren, erabilgarri dauden baliabideen balorazioa egingo da, karga/gaitasuna erlazioa kanpoko laguntzaz orekatuz.</p>												
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 11	AZPIEGITUREN MANTENTZE-LANAK												
EKINTZA	11.2	Mantentze Planari loturiko Hezkuntza Plana											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	10.000 €		X			X				X			X
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, P. Lazkano, J. Albisua, I.Zubillaga												
TESTUA													
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 11	AZPIEGITUREN MANTENTZE-LANAK													
EKINTZA	11.3	Brigadaren ekipamendua eta baliabideak												
		2016			2017			2018			2019			
AURREKONTUA	45.000 €		X			X			X			X		
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, P. Lazkano, J. Albisua, I. Zubillaga													
TESTUA	Gaur egun erabiltzen diren baliabideak berritzea eta tresna berriak erostea, mantentze planean zehaztutakoaren arabera.													
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%						
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA														

PROZESUA 11	AZPIEGITUREN MANTENTZE-LANAK													
EKINTZA	11.4	Lur zorua hobetzeko plana												
		2016			2017			2018			2019			
AURREKONTUA	250.000 €		X			X			X			X		
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, J. Albisua, I. Zubillaga													
TESTUA	Mantentze planaren barruan, baina berezko izaeraz, helburua da, urteroko diru-partida baten bidez, herriko kale eta bideetako lur zorua berritzen joatea. Honako hauek daude aurreikusita berehala: - Barrenkale. - Madaya aparkalekua. - Labeaga-lpeñarrieta bidegurutzea (2016rako proiektua) - Pagoeta parkea-lorategia													
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%						
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA														

PROZESUA 11	AZPIEGITUREN MANTENTZE-LANAK												
EKINTZA	11.5	Espaloiak hobetzeko plana											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	180.000 €				X			X	X		X		
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, J. Albisua, I, Zubillaga												
TESTUA	<p>11.4 ekintzaren antzeko ikuspegitik, aldez aurretik erabili beharreko baldosa moten estandarizazioa azterturik, ezaugarri estetikoak eta funtzionalak lehenetsiz, Labeaga kalean eta Goldeneko plazatxoan egingo dira lehen jarduketak, "Ormazabal etxeko" etxebizitza berrietako obren aurrerapenarekin koordinatuz.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 11	AZPIEGITUREN MANTENTZE-LANAK												
EKINTZA	11.6	Ur saneamenduaren sare orokorra											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	60.000 €	X		X	X		X	X		X	X		X
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, J. Albisua, I, Zubillaga												
TESTUA	<p>Mantentze planaren barruko ikuspegi partikular batekin hau ere, sare orokorraren barruko gune kritikoak aztertuko dira, zaharkitze arazoak dituztenak eta ur haundiak datozen uneetan arriskua sor dezaketena, edo besterik gabe zerbitzurako irizpide berrietara egokitzeko beharra dutenak identifikatuz.</p> <p>Sare barruan honako gune hauek izango dira berehala egin beharrekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lilibasoko jaitsiera. - Institutua-Mundo Mejor kanpa. - Pagoeta auzoa – Ikastolako jaitsiera. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 12	HIRIGINTZA																
EKINTZA	12.0	HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA															
		2016				2017				2018				2019			
AURREKONTUA	200.000 €			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X				
ARDURADUNAK	I. Mendizabal, M.J. Begiristain, I. Zubillaga,																
TESTUA	<p>“Urretxuko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginak”, 2012ko ekainaren 26an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz onartua, gure herriak gaur egun dituen beharrei erantzuten ez dieten aurreikuspenak jasotzen ditu, hainbat eremutarako ez du erantzun zehatzik, eta zuzendu beharreko fitxa ugari ditu, euren garapena ez galarazteko behar den segurtasun juridikoa eman ahal izateko; hortaz, ez litzateke posible izango Arau Subsidiarioak Plan Orokor bihurtzea, eta horretarako Hiri-Antolamendurako Plan Orokor berria idatzi beharko litzateke.</p> <p>Plan Orokor berriaren helburua izango da Urretxuko etorkizun urbanistikoari erantzungo dioten irizpideak eta jarraibideak zehaztea, eta zehazki esanda, datozen urteetako hirigintza-antolamendua. Hori lortzeko gure eginkizuna izango litzateke oraingo eta geroko beharrei erantzuna ematea hainbat arlotan: hala nola, etxebizitza, jarduera ekonomikoak, inguru naturala, ekipamenduak (kirol instalazioak, ikastetxeak, kulturalak, sozialak, e.a...), gune libreak, mugikortasuna eta garraioa (kale eta errepideak, oinezkoen eta txirrindularien ibilbideak, e.a...), hiriko Zerbitzuak (ura, saneamendua, hondakinak, elektrizitatea, telekomunikazioak...), e.a..., beti ere datozen 8 edo 10 urteetarako, gutxi gorabehera.</p>																
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%									
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 12	HIRIGINTZA																
EKINTZA	12.1	HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA -1 FASEA-															
		2016				2017				2018				2019			
AURREKONTUA				X	X												
ARDURADUNAK	I. Mendizabal, M.J. Begiristain, I.Zubillaga																
TESTUA	<p>• Indarrean dauden Arau Subsidiarioen fitxa urbanistikoetan eragina izan dezaketen arazoei soluzio teknikoa emateko azterketa, diagnosa eta proposamen fasea: Lehenengo fase hau gauzatzeko udal arkitektoak ematen dituen zerbitzu profesionalen kontratua luzatu da, 2016ko abendura bitartean fitxa urbanistiko guztiak azter ditzan, diagnostikoa egin eta horietan egon daitezkeen arazoei soluzio teknikoa emateko proposamena egin dezan.</p>																
						0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 12	HIRIGINTZA																
EKINTZA	12.2	HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA -2 FASEA-															
		2016				2017				2018				2019			
AURREKONTUA					X												
ARDURADUNAK	I. Mendizabal, M.J. Begiristain, I.Zubillaga																
TESTUA	<p>• Erakusketa eta talde politikoaren arteko negoziaketa fasea, Plan Orokor berria ahalik eta adostasun haundienarekin onartzea ahalbidetuko duena: Lan teknikoa egitearekin batera, eta hamabosteroko maiztasunarekin, udal arkitektoak egingo duen proposamen teknikoaren inguruan talde politikoaren aldetik ahalik eta atxikimendu zabalena lortzeko ahalegina egingo da.</p>																
						0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 12	HIRIGINTZA															
EKINTZA	12.3	HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA -3 FASEA-														
		2016			2017			2018			2019					
AURREKONTUA					X											
ARDURADUNAK	I. Mendizabal, M.J. Begiristain, I.Zubillaga															
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> Herritarren parte-hartze fasea: Planeamendu berriaren inguruan behar den atxikimendua lorturik, eta Plan Orokor berriaren idazketa formala talde tekniko bati agindu aurretik, 15 eguneko epea irekiko litzateke Urretxuko herritarrei aukera emateko hirigintza antolamenduaren zehaztasunak ezagutzeko, horren edukia, osatzen duten proiektuak, aurreikuspenak, herritarrak behar bezala informatuta egon daitezzen, beti ere gaur egungo egoeraren eta Plan Orokor berriaren aurreikusitako irudiaren informazio adierazgarria eta konparagarria erakutsiz. 															
					0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																

PROZESUA 12	HIRIGINTZA															
EKINTZA	12.4	HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA -4 FASEA-														
		2016			2017			2018			2019					
AURREKONTUA							X									
ARDURADUNAK	I. Mendizabal, M.J. Begiristain, I.Zubillaga															
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> Hiri-Antolamendurako Plan Orokor berriaren idazketa formalaren fasea: Planeamendu berria idatziko duen taldeak dokumentuari forma emango dion fasea izango da, aldez aurretik udal arkitektoak egindakoa eta Udalean ordezkariak duten talde politikoen atxikimendu zabalena izango duena. Fase hau amaituta egon beharko du 2017ko urria baino lehen, planeamendu berriaren tramitazioa eta onarpen faseari hasiera emateko. 															
					0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																

PROZESUA 12	HIRIGINTZA													
EKINTZA	12.5	HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN IDAZKETA -5 FASEA-												
		2016			2017			2018				2019		
AURREKONTUA								X	X	X	X			
ARDURADUNAK	M.J. Begiristain, I. Zubillaga													
TESTUA	<p>• Hiri-Antolamendurako Plan Orokor berriaren tramitazio eta onarpen fasea: Fase honetan Udalak planeamendu berriari emango dio onarpena, ondoren jendaurrean erakutsiz. Jendaurreko informazio prozesuaren emaitza ikusirik, Plan Orokorraren onarpena egingo da, bidezko diren aldaketak eginez. Lurralde Antolamendurako Batzordearen txosten loteslea lortutakoan, eta hortik etorritako aldaketak egin ondoren, behin betiko onarpena emango zaio Plan Orokorrari; azken tramite hori Udalarari edo Gipuzkoako Foru Aldundiari egokituko zaio, beti ere Urretxuko biztanleriaren arabera. Azken fase hau 2018ko ekitaldia amaitu baino lehen bukatuta eduki nahi da.</p>													
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%						
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA														

PROZESUA 13	INGURUMENA														
EKINTZA	13.1	Urretxuko Tokiko Agenda 21 Planaren ezarpena, aldaketa klimatikoari buruzko planaren idazketa barne dela.													
		2016			2017			2018			2019				
AURREKONTUA	45.000 €				X				X				X		X
ARDURADUNAK	A. Lizarralde, J. Albisua, I. Zubillaga														
TESTUA	<p>Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana berrikusiko dugu eta prozesu hau aprobetxatuko dugu (dokumentazioa, barne hausnarketa, herritarren parte-hartzea, ...) bertan txertatutako estrategia adierazgarrienak sakonki sustatzeko, hala nola Aldaketa Klimatikoaren aurka borrokatzeko Programa (arintze eta egokitze alderdietan) eta Mugikortasun Jasangarriko Plana.</p>														
		0%		10%		20%		40%		60%		80%		100%	
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA															

PROZESUA 13	INGURUMENA														
EKINTZA	13.2	Argiteria publikoan energia-eraginkortasuneko neurrien ezarpenarekin jarraitzea.													
		2016			2017			2018			2019				
AURREKONTUA	200.000 €	X	X		X	X		X	X		X	X			
ARDURADUNAK	A. Lizarralde, J. Albisua, I. Zubillaga														
TESTUA	<p>Urretxuko Udala udal planifikazio energetikoa garatzen ari da Energiaren Euskal Erakundearen laguntza ekonomikoarekin. Energia-eraginkortasunaren inguruan hartutako neurrien helburua CO2 emisioak murriztea da eta gaur egungo energia-baliabideak aprobetxatzea, mantenu eta hornidura gastuen murrizketa eskainiz.</p>														
		0%		10%		20%		40%		60%		80%		100%	
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA															

PROZESUA 13	INGURUMENA												
EKINTZA	13.3	Ekoscan ziurtagiriaren ezarpenarekin jarraitzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	40.000 €		X			X			X			X	
ARDURADUNAK	A. Lizarralde, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	2016 urtean zehar ziurtagiriaren lehen maila lorturik, legealdi amaierarako ziurtagiri osoa (4 maila) lortzea da helburua.												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 13	INGURUMENA												
EKINTZA	13.4	Hiri hondakinak biltzeko sistema berria. Gaikako bilketarekiko eta birziklatzearekiko konpromisoa.											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Sasieta Mankomunitatea			X	X								
ARDURADUNAK	A. Lizarralde, J. Albisua, I. Zubillaga												
TESTUA	Urretxuk %45 inguruko portzentajea lortu du hiri hondakinen gaikako bilketan, tasa txikiegia oraindik; hortaz, jauzi kualitatiboa emateko eta gutxienez %70eko helburua lortzeko unea iritsi da, ingurumeneko arrazoiak nahiz ekonomikoak kontuan izanik. Horretarako, birziklapenean oinarritutako gaikako bilketa sistema berria hartuko du Urretxuk, baina aldi berean kontenedoreen sistemak eskaintzen dituen abantailak eta erraztasunak mantenduz. Horretarako, sistema ezarri aurretik, sentsibilizazio kanpainak egingo dira.												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 14	MUGIKORTASUNA ETA TRAFIKOA																
EKINTZA	14.1	Auzobusa															
		2016				2017				2018				2019			
AURREKONTUA	104.000 €	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
ARDURADUNAK	A. Lizarralde, J. Albisua, I. Zubillaga																
TESTUA	Zerbitzua gaur egun bezala ematen jarraituko da; ordutegiaren eta ibilbideen efikaziari buruzko balorazioa egingo da urtero, eta lortutako emaitzen arabera egokitzapenak egin.																
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%									
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 14	MUGIKORTASUNA ETA TRAFIKOA																
EKINTZA	14.2	Goialdeko eta urrutiko auzoetarako irisgarritasunaren azterlana berrikustea eta egokitzea															
		2016				2017				2018				2019			
AURREKONTUA	25.000 €						X	X									
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, I. Mendizabal, I. Zubillaga, J. Albisua																
TESTUA	Lehendik badago arazo hau aztertu duen azterlana. Legealdi honetan zehar berrikusi egingo da eta gaur egungo egoerara egokituko da.																
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%									
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA																	

PROZESUA 14	MUGIKORTASUNA ETA TRAFIKOA														
EKINTZA	14.3	Arkitektura-oztopoak kentzeko azterlana berrikustea eta egokitzea.													
		2016			2017			2018			2019				
AURREKONTUA	200.000 €			X	X			X	X			X	X		
ARDURADUNAK	B. Etxaniz, I. Mendizabal, I. Zubillaga, J. Albisua														
TESTUA	Lehendik badago arazo hau aztertzen duen azterlana. Legealdi honetan zehar berrikusi egingo da eta gaur egungo egoerara egokituko da.														
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA															

PROZESUA 14	MUGIKORTASUNA ETA TRAFIKOA														
EKINTZA	14.4	Trafikoaren joan-etorriak berrikustea, aparkaleku eta zamalanetarako gune berrien premia baloratuz.													
		2016			2017			2018			2019				
AURREKONTUA	25.000 €			X	X										
ARDURADUNAK	X. Ubera, B. Etxaniz, J. Albisua, I. Zubillaga														
TESTUA															
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA															

PROZESUA 15	SEGURTASUNA												
EKINTZA	15.1	Herriko Larrialdi Plana eguneratzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Barne-baliabideak			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	I. Zubillaga, J. Albisua, X. Ubera, P. Lazkano, B. Etxaniz												
TESTUA													
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 15	SEGURTASUNA												
EKINTZA	15.2	Larrialdietako zerbitzuen sarbidea bermatzea herriko kale guztietara.											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Barne-baliabideak			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	I. Zubillaga, J. Albisua, X. Ubera												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdietako zerbitzuen sarbideak aztertzea eta horiekiko koordinazioa. - GILTZAGUNE eguneratzea eta jarraipena. - Sarbide eta segurtasun sistema oso baten ezarpena aztertzea. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

Nortasun-zeinuak

Bakea eta Bizikidetzatza

Kultura eta Hezkuntzatza

Kirolak

Jaiak

Euskara

Gazteriatza

PROZESUA 16	BAKEA ETA BIZIKIDETZA												
EKINTZA	16.0	Bake eta bizikidetza politikak herri mailan biltzea sustatzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	48.000 €			x			x			x		x	
ARDURADUNAK	J. Luqui / talde sozialak eta politikoak												
TESTUA	<p>2011ko urrian ETak indarkeriaren amaiera iragarri ondoren, bakea behin betiko sendotzea eta bizikidetza normalizatzea herritarren, elkarten eta politikoen interpelazioak dira, euskal erakundeetan oihartzuna eta isla dutenak. Udal eremua da gune instituzional gertuenekoa elkartearen oinarrian eguneroko bizikidetza eraikitzeko. 2013/11/26an Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartutako 2013/16 Bake eta Bizikidetza Plana, aurreko legealdian Eusko Legebiltzarrak onartutako “zoru etikoa” deitutakoa, eta 2015/10/29an Udalbatzak osoko bilkuran onartutako Adierazpena (Urretxuko Udalak herriko eremuan biktimen aitortza eta memoria jarduerak sustatzeari buruzkoa) oinarri hartuta.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 16	BAKEA ETA BIZIKIDETZA												
EKINTZA	16.1	Bizikidetzaren Udal Plana egitea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	12.000 €		x	x	x								
ARDURADUNAK	J. Luqui / talde sozialak eta politikoak												
TESTUA	<p>Bizikidetza Plana prestatzeak hainbat ekintza aurreikusten ditu eremu politikoan, herritarrekin, formazio eta zabalkunde eremuetan. Giza duintasunaren etikaren printzipioan eta giza eskubideen konpromiso etikoan eta osoan oinarriturik, gure herriko eremutik bakearen eta giza eskubideen kultura sustatzea izango da helburua, indarkeriaren amaiera behin betiko eta itzulerarik gabe sendotzen laguntzeko, eta bizikidetzaren normalizazio soziala bideratzeko. Aniztasunarekiko errespetua oinarritzko funts demokratikoa da eremu honetan jarduteko, adostasunak sortzeak bere biziko garrantzia baitu. Gure herrian, ezberdinen artean, oinarritzko akordio sozial eta politikoak bilatzea eta bultzatzea izango da oinarritzko irizpide soziala Bizikidetza Plan hau legealdiko proiektu sendo bat izan dadin.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 16	BAKEA ETA BIZIKIDETZA														
EKINTZA	16.2	Bizikidetzarako Udal Planean zehaztutako ekintzak bultzatzea													
		2016			2017			2018			2019				
AURREKONTUA	48.000 €			x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
ARDURADUNAK	J. Luqui / grupos sociales y políticos														
TESTUA	<p>Iradokizun gisa, eta lor litezkeen akordioen zain, aukera zabala proposatzen da: bake eta bizikidetzarako udal batzordea, herritar foroak eta bizikidetzaren anitzeko esperientziak, memoria politika udal eremuan, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen kultura baterako edozein ekimen.</p>														
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%							
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA															

PROZESUA 17	KULTURA ETA HEZKUNTZA													
EKINTZA	17.1	Kultur instalazioak eta ekipamenduak egokitzea, irisgarriak, lagunkoiak eta herritarren beharretara egokituak izan daitezten.												
		2016			2017			2018			2019			
AURREKONTUA	50.000 €			X			X			X		X		
ARDURADUNAK	M. Fidalgo, J. Luqui													
TESTUA	<p>Beharrezkotzat jotzen da kultur instalazioak gaur egungo beharretara egokitzea. Jarduerak nahiz baliabideak aldatzen joan dira, eta beraz, gaur egun dauden guneak egokitu beharra ikusten da. Gainera, gune bakoitzari eman beharreko baliabideak eman beharko zaizkio, bertan egiten diren jarduerak eta ekimenak gauzatzeko.</p> <p>-Kultur Etxea:</p> <p>*Lorategi ingurua berreskuratzea hainbat kultur jarduera egiteko.</p> <p>-Juan de Lizarazu:</p> <p>*Urteko erakusketa plana bultzatzea eta indartzea, herriko eta kanpoko ekoizpena nahastuz, herriko artistei arreta berezia eskainiz.</p> <p>*Erakusketa material berriak eta modernoak ematea aretoari (peanak, bitrinak, ...), teknologia berriak, ...</p> <p>-Labeaga aretoa, haur eta musika programazioaren egoitza:</p> <p>*Instalazioaren azterketa egitea, probetxu hobea ateratzeko eta gaur egungo erabilera anitzetarako beharretara hobeto egokitzeko.</p> <p>*Haurrak altxatzeko aulkiak erostea</p> <p>*Argi eta soinu instalazioen mantenturako plan baten beharra aztertzea.</p>													
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%						

PROZESUA 17	KULTURA ETA HEZKUNTZA												
EKINTZA	17.2	Kultur adierazpen ezberdinak bultzatzea herritarren artean euren aisialdian sartzeko, eta horretarako kultur ekimen eskaintza zabaltzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	15.000 €	X			X			X			X		
ARDURADUNAK	M. Fidalgo, J. Luqui												
TESTUA	<p>Kultura oinarrizkoa da norberaren garapenerako eta kohesio sozialerako. Ondorioz, kultur adierazpen ezberdinez gozatzeko aukera eskaini nahi dugu, herriko talde eta elkarten eskaintza osatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kultura zabaltzeko, sustatzeko eta sortzeko jarduerak antolatzea, antzerki egitaraua, ikastaroak, erakusketa plana, hitzaldiak, lehiaketak, ... - Kultur elkarte eta taldeentzako diru-laguntza lerroa mantentzea, eta beraiekin lankidetzan aritu jardueren antolaketan. - Gainera, kalea eta gune publikoak indartuko ditugu kultur gune gisara, Santa Barbarako kontzertuak bezalako ekimenak bultzatuz, eszenatoki iraunkorra egokituz. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 17	KULTURA ETA HEZKUNTZA												
EKINTZA	17.3	Herriko ikastetxeen kudeaketan lankidetzak aktiboa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	15.000 €	X			X			X			X		
ARDURADUNAK	J. Luqui, I. Zubillaga, J. Albisua												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza eta gida batzordeetako bileretan parte-hartze aktiboa izatea. - Eskolaz kanpoko jarduerak diruz laguntzea, gure haur eta gazteen heziketa integralean laguntzeko. - Ikastetxeekin elkarlanean eta koordinatuta, ikasleei zuzendutako jarduerak egitea. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 17	KULTURA ETA HEZKUNTZA												
EKINTZA	17.4	Irakurzaletasuna sustatzea, Liburutegia ezagutaraztea eta horren erabilera bultzatzeko ekintzak antolatzea.											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	15.000 €		X				X			X		X	
ARDURADUNAK	M. Fidalgo, J. Luqui												
TESTUA	<p>Udal Liburutegia oinarrizko zerbitzua da; erakargarria izatea eta herritarren zerbitzura egotea nahi dugu. Horregatik ezinbesteko iruditzen zaigu agiri berrien funtsa sendotzea eta zerbitzu hau ezagutarazteko jarduerak egitea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liburutegiari funts berriak ematen jarraitzea. - Baliabideak automatizatzen eta modernizatzen jarraitzea. - JARDUEREN ANTOLAKETA: - Herriko idazleak bultzatzea hitzaldien eta liburu aurkezpenen bitartez. <p>Mahai-inguruak herriko idazleekin, e.a...</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liburutegia kalera ateratzea, herritarrari gerturatu ekintzak antolatuz: Liburuak Plazara, Bibliopiszina, e.a... - Haurrentzako ekintzak antolatzea: ipuin kontalaria, tailerrak, e.a... 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 17	KULTURA ETA HEZKUNTZA												
EKINTZA	17.5	URRELUR MUSEOA											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak	X				X			X			X	
ARDURADUNAK	M. Fidalgo, J. Luqui												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> - Mineral eta fosilen mundua zabaltzea jende guztiari, modu erakargarri eta didaktikoan, arlo honetako erreferentzia gune bihurtuz, eta Urretxuri tokia emanaz eremu museistiko eta turistikoan. - SICTEC kalitate planean parte hartzea, instalazioaren zerbitzu onena bermatzeko. - Teknologia berriak jartzea, erabiltzaileen eskaerari kudeaketa moderno eta arin batekin erantzuten laguntzeko. - Edukiak ikuspegi pedagogiko didaktiko batetik lantzea. - Museoa herritarrei gerturatzeko asmoz, museoa kalera ateratzea, hainbat ekintza antolatuz, hala nola: txangoak (autobusa gela bihurtzen denekoa), parke mineralogiko eta paleontologikoak (bizi esperientzia), feriak, Urretxun eta inguruetan zehar ibilbide geologikoak, e.a... - Mankomunitateko turismo sailarekin zuzenean parte hartzea. - Gune propioa izatea eskualdeko turismo eta kultura eskaintzan. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 17	KULTURA ETA HEZKUNTZA												
EKINTZA	17.6	SCHWARZENBRUCK											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	60.000 €	X	X			X			X			X	
ARDURADUNAK	M. Castillo, J. Luqui												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> .- Senidetzea indartzea kultura, gizarte eta kirol esparruetan, 25. Urteurrenaren ospakizunarekin. .- Schwarzenbruck herriarekiko eta inguruko harremanetan eduki ekonomikoa txertatzea 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 18	KIROLA												
EKINTZA	18.1	Udal taldeen artean jarduera fisikoa sustatzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	9.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M. Cristóbal, J. Luqui, I. Zubillaga, M. Fidalgo												
TESTUA	<p>Kirolaren bitartez herritarrek egiten duten jarduera fisikoaren kantitatea eta kalitatea handitu nahi dugu, horrek onura ugari dakar eta. Horretarako, kiroldegian eskaintzen diren zerbitzuen katalogoa handituko dugu, herritarren nahiak eta beharrak asetuko dituen eskaintza zabal bat izan dezagun.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 18	KIROLA													
EKINTZA	18.2	Kirol instalazioetako plegu berriak berrikustea, prestatzea eta esleipena egitea												
		2016			2017			2018			2019			
AURREKONTUA	9.000 €			X	X									
ARDURADUNAK	M. Cristóbal, J. Luqui, I. Zubillaga, M. Fidalgo													
TESTUA	<p>Urretxuko Udalaren kirol politikaren helburua herritar guztientzako bizitza osasungarria lortzea da, biztanle guztien premia fisiko eta kirolekoak asetuz. Aipatutako politika kontuan izanik, plegu berriak prestatuko dira, Urretxuko Udalaren kirol instalazioetan zerbitzu ezberdinak eta baldintza egokietan bermatu ahal izateko. Arreta berezia eskainiko zaio kontratuaren jarraipenari eta kontrolari.</p>													
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%						
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA														

PROZESUA 18	KIROLA												
EKINTZA	18.3	Elkartegintza oinarri hartuta, Udalez gaindiko kirol jarduerak sustatzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	12.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M. Cristobal, J. Luqui, I. Zubillaga, J. Albisua												
TESTUA	<p>Herritarren babesaren duten kirol jarduerak indartu, babestu eta mantendu nahi ditugu: mendi martxak, txirrindulari probak, hainbat txapelketa, ...</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 18	KIROLA												
EKINTZA	18.4	Eskola Kirola bultzatzea kirol federatuaren, herrikoiaren eta ohitura osasungarrien oinarri gisa											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	12.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M. Cristóbal, J. Luqui, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>Herri mailako eskola kirola sendotzea eta indartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, federazioekin, ikastetxeekin eta herriko kirol elkarteekin elkarlanean.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 18	KIROLA												
EKINTZA	18.5	Ederrena pilotalekua											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	15.000 €			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M. Cristóbal, J.Luqui, I. Zubillaga												
TESTUA	<p>Era guztietako ekitaldietan erabiltzearen ondorioz, pilotalekuko zorua hondaturik dago eta konponketa lana eskatzen du, lur zorua egoera onenean egon dadin pilotan jokatzeko.</p>												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 19	JAIAK								
EKINTZA	19.1	Jai Nagusiak, auzoetakoak eta tradizionalak sustatzea eta eguneratzea, herriko elkarte eta taldeekin lankidetzan							
		2016		2017		2018		2019	
AURREKONTUA			X		X		X		X
ARDURADUNAK	J.Luqui/ M.Castillo/ Herriko elkarte eta taldeak								
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> - San Juan eta Santa Anastasia jaiak zaindu, sustatu eta eguneratu nahi ditugu, eta gainera euren nortasuna duten auzoetako jaietan laguntza eman, San Martin eta Geltokietako jaiak, eta nola ez, Inauteriak edo Olentzero moduko beste jai tradizional batzuk indartu eta bultzatu. Eta jendearen eta taldeen inplikazioa zerbaitetarako behar bada jaiak antolatzeke da, horien arrakasta herritarren inplikazioaren arabera izango baita. - Jaietan modu aktiboan parte hartzen duten elkarte eta taldeentzako diru-laguntza lerro bat mantentzea. - Denon artean denontzako jaiak egitea ahalbidetuko duen parte-hartze eredu baten bidez jaiak antolatzea. 								
			10%	20%	40%	60%	80%	100%	
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA									
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%	

PROZESUA 20	EUSKALDUNTZE INTEGRATZAILEA BULTZATZEA, KOHESIOA BERMATUZ												
EKINTZA	20.1	Administrazioa euskalduntzea											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M.J Begiristain, J.M. Alberdi, J. Luqui												
TESTUA	<p>Udal jardunean euskalduntze maila (erabilera) sustatzea eta areagotzea. ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Plana oinarri hartuta, euskararen erabilera bultzatzea eta indartzea. Udal zerbitzuetako Hizkuntza Politika erabakitzea eta martxan jartzea, honako hauei dagokienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Itzulpen politika eta ahozko erabilera. - Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. - Langileak aukeratzeko irizpideak. - Kontratazio administratiboetarako irizpideak. - Udal ordezkarien konpromisoa, euren jardunean euskararen erabilerari lehentasuna emateko. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 20	EUSKALDUNTZE INTEGRATZAILEA BULTZATZEA, KOHESIOA BERMATUZ												
EKINTZA	20.2	Gure herrian dauden gainontzeko nortasunekiko errespetua eta harremana aintzat harturik, Urretxuren euskaldun nortasuna indartzea eta sakontzea, hemengo kultura eta ohituren transmisioa eginez.											
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M.J Begiristain, J.M. Alberdi, J. Luqui												
TESTUA	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarazko kultur jarduerak sustatzea. - Nerabeekin eta gazteekin euskararen erabilera bultzatzea beraien aisialdian: Mingainluze, e.a... Baita ere gainontzeko gizarte taldeekin eta oro har herritar guztiekin. - Herriko historia eta ohituren inguruan dagoen materiala zabaltzea, horren sorkuntzan jarraitzea eta zeharlerro gisa lantzea (eskoletan, adin nagusikoekin, kultur elkarteekin, adituekin, e.a...) 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													

PROZESUA 21	GAZTERIA												
EKINTZA	21.1												
		2016			2017			2018			2019		
AURREKONTUA	Berezko baliabideak			X			X			X		X	
ARDURADUNAK	M. Castillo, J. Luqui, M. Fidalgo												
TESTUA	<p>Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema, Gaztematika, garatuko dugu herri mailan. Horretarako, ezinbestekoa da sistema hori zer den ezagutaraztea, eta ondoren, hori garatzeko behar den egitura sortzea.</p> <p>Aintzat hartuko dugu haurren, nerabeen eta gazteen arreta, egiten duguna hobetzeko eta jarduketa lerro berriak martxan jartzeko. Nerabeen zerbitzuarekin jarraituko dugu eta 2016an amaituko da zerbitzua hobetzeko planifikazioa. Haurren eta gazteen premiak ere aztertuko ditugu. Azken finean, haurrak, nerabeak eta gazteak bizitzen ari diren garaiak goza dezaten eta euren autonomia garatu dezaten estrategiak eta jarduerak jarriko ditugu martxan</p> <p>NERABEAK: GAZTEBIDEAN zerbitzutik beraiekin lan egingo dugu, beti ere GAZTEMATIKAREN lan lerroen barruan.</p> <p>HAURRAK: Opor garaian aisialdiko heziketa jarduerak eskaintzea: udalekuak, Aste Santuan eta Gabonetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aisialdi-heziketa eskaintzarekin jarraituz: joko parte-hartzaileen programazioa, zinea eta antzerkia, igande arratsaldeetan eta urtero. - Haurrentzako PARKE ESTALIA azterlana amaitzea. - Gizarte Ongizatearekin koordinazioa, arrisku egoeran dauden adin txikikoen detekzioa eta esku-hartzea egiteko. - GAZTERIA: GAZTELEKUAREKIN lan egitea koordinazio hobea lortzeko. 												
		0%	10%	20%	40%	60%	80%	100%					
EZARPEN MAILA -- ADIERAZLEA													